


# DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 262. zenbakia. 2017ko abendua



**Esteban Astarloa,  
izarretan izar**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Familiaren Osasuna**  
**Zure familiaren ahoaren osasunaz**  
**arduratzen garelako**  
**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

**Ugaro**  
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 17 43 44 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusibook:

**Allianz**   
Seguros

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Esteban Astarloa.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Valentin Mugarza,  
eta Ermuko Nazioarteko  
Lankidetzeta eta Elkartasun  
Kontseial.

**ARGAZKIAK:**

Javier Crespo,  
San Lorenzo eskola,  
Igone Amesti eta Eneritz  
Aranburu,  
Esteban Astarloa,  
Itsaso Praderak,  
Txindurri Dantza Taldea,  
Nerea Andres,  
Ermuko Euskaltzaleen Sarea,  
Estibalitz González,  
Googaz Bizkaia,  
Valentin Mugarza,  
Mirene Moreno  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Sergio Rico  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Agilando (Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Agilando, agilando  
bizkaitxarrak Durango,  
zazpi gaztaiña,  
zortzi intxor.  
Aingeruak gara,  
zerutik gatoz,  
lotsia baukou baiña  
eskian gatoz.  
Si si si, no no no  
altzo bete solomo.  
Hamen gatoz lau,  
atzetik beste lau,  
kanpai joten bi,  
emoizu limosnia  
Jaungoikuagaitxik.  
Aquí estamos cuatro,  
sinco compañía,  
seis letañia,  
siete Ave María,  
ocho odolostia  
"pa" la Virgen de María



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4 Nerea Andres (Islandia)	KIROLZALE .....17 Anne Erauskin eta Mirene Moreno
ELKARRIZKETA .....5-7 Asier Ibaibarriaga, bertso-epailea	ESKOLEN TXOKOA .....18 San Lorenzo eskolako albisteak
MALLABIAN ZER? .....8-9 Esteban Astarloa, baritonoa	IRITZIA .....19 Bilboko harresia
MALLABIAN ZER? .....10 Pradera Olaso familia eskerrak ematen	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN.....12-13 Txindurri Dantza Taldearen egutegia	ZORION-AGURRAK.....21 Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA .....14-15 Eguzki-labeak Cabo Verdera	URTARRILEKO AGENDA .22
ERMUAN ZER? .....16 Googaz Bizkaia	

Googaz Bizkaia

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

## Nerea Andres

Erasmus beka lortu eta Islandiara joan zen abuztuaren 19an Nerea Andres. Akureyri hiriak, 18.000 biztanle dituenak eta Islandiako bigarren hiri handiena denak, jaso du mallabitarra. Lehen Hezkuntzako gradu ikasleak gurasoan konpainia izan zuen lehen astean, baina gero bere bidea jarraitu du sumendi eta aurora borealen herrialdean.

### - Erabaki erraza izan zen Islandiara joatea?

Erraza egin zitzaidan erabakitzea. Esperientzia berri positibo eta aberasgarri bat izango zela banekien eta aldatzeko gogoia neukan. Bi aldiz pentsatu gabe aukeratu nuen Islandia, bertako argazkiak ikusi eta nire begiekin ikustea nahi nuela sentitu ostean.

### - Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Paisaia aldetik banekien zoragarria izango zela baina ez hainbeste! Egutero ikusi arren, egutero harritzen naiz kanpora irtetea. Islandiako jendea ezagutu bezain pronto konturatu nintzen ez dutela kanpoko jendea ezagutzeko gogo handirik. Gu berriak izatera, lagun bila joaten ginen eta ez gintuzten oso ondo hartzen beraien taldeetan. Beraz, Islandiar lagunak ez dut egin zoritxarrez. Lagunkoiagoak izango zirela uste nuen, baina ez da horrela izan. Atzerrikoak elkartu gara eta lagun mordoa egin ditut!

### - Nola moldatzen zara hizkuntzarekin han?

Ingelesa erabiltzen dut, islandiar guztiek dakite ingelesez hitz egiten arazorik gabe. Beraz, supermerkatuetara edo



edonora joaten naizela, ingelesez hitz egiten dut. Hala ere, islandiera ikasten nabil eta zaila den arren, zertxobait hitz egin dezaket.

### - Eta hotzarekin?

Abuztuan, etorri nintzenean, ez zuen hotz handirik egiten. Jertse batekin nahikoa zen eguzkitan egoteko. Baina urritik aurrera mendiak elurtzen joan ziren eta gero eta hotz handiagoa egiten hasi zen, baina, hala ere, ez geneukan arazorik kalean ibiltzeko. Azaroan hasi zen elurra egiten Akureyri eta ordutik -10 gradu inguru izan ditugu egutero eta -16 gradura ere iritsi da inoiz. Beraz, arropa asko jantzi behar izaten dugu egutero. Orain arte, elur ekaitz bakarra izan dugu eta egun horietan ezin izan ginen etxetik irten.

### - Aurora borealik ikusteko aukera izan duzu?

Bai, zirrargarria da ! Hasieran, Akureyritik ezin izango genuela ikusi uste genuen eta argirik gabeko lekuren bate-

ra joan beharko ginela. Baina behin etxeko leihotik begira geundela ikusi genuen gure lehenengo aurora boreala. Eta hortik aurrera etxetik kanpora irten eta zerura begiratu besterik ez dugu behar izaten baten bat ikusteko. Ne-guan, zerua hodeiz beteta dagoenez, ezin izan ditugu hain sarri ikusi.

### - Nolako da zure egun arrunt bat?

Goizean unibertsitatera joaten naiz. Horretarako, 25 minutu egin behar izaten ditut oinez ilunetan, elur eta izotz artean. Klaseak bukatu eta gero, herriko igerilekura joaten gara. Aire librean daude eta guztiek dute ur beroa. Uretan 40 gradura gauden bitartean, elurra erortzen zaigu buru eta aurpegira. Herri guztia egoten da bertan, jacuzzietan hitz egiten eta jolasten. Horren ostean, kanpoan jenderik egoten ez denez, lagunak etxera joaten gara, elkarrekin afaldu eta pelikularen bat ikustera.

Ekhi Velar

**SAN ANTONIO**

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**

**Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)


**AMAIA  
HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen



Asier Ibaibarriaga, bertso-epailea:

**“Epaileak bertsoa harrapatu eta zenbaki bihurtzeko gaitasuna dauka”**

Maialen Lujanbiok Euskal Herriko bertsolari onena izendatzen duen txapela jantzi zuen igandean, abenduaren 17an, BECen. Jai-giro handia bizi izan zen bertsolaritzaren tenplu modernoan, emozio eta zirrarez jantzi zuten egun osoko saioa BEC lepoz bete zutenen txalo eta oihuek. Bitartean, foku eta argien atzean, Asier Ibaibarriaga epaile lanetan.

Bertso-epaile ermuarrak bere lanaren, bertsolaritzaren eta finalean bizitakoaren berri eman digu.

**- Zertan datza epaileen lana Euskal Herriko Bertsolaritza Txapelketan?**

Hamabost lagun gara taldean eta, herrialde bakoitzeko txapelketak daudenez, hango epaile onenak hartzen dira Euskal Herriko Bertsolaritza Txapelketarako. Martin Aramendi eta biok epaileak aukeratu eta entrenatzen ditugu, eta txapelketako fase bakoitzean zein epaile egon behar den aukeratzeko dugu. Hori izan da nire lana txapelketan zehar, epaileen lana epaitu eta eskas ikusten genuena aldatzea. Beste alde batetik, epaileen lana zein den? Bertsolari puntuazioa ematea. Oso zaila da, gauza objektibo eta subjektiboak hartzen direlako kontuan. Daukagun esperientzian oinarritzen gara justuak izateko. Epaileok bertso asko entzun ditugu eta bertsoen ertz guztiak ezagutzen ditugu. Horretan trebatzen gara entrenamenduetan, bertso ezberdinak entzuten, diskurtso gogorrak entzuten bertsoak nola eragiten digun ikusteko... Epaileak

oso prestatuta gaude eta bertsoa harrapatu eta zenbaki bihurtzeko gaitasuna dauka.

**- Nola puntuatzen dira bertsoak?**

Zazpi epaile egoten dira: bi gipuzkoar, bi bizkaitar, eta arabar, nafar eta iparraldetar bana; herrialde guztiak ordezkatzeko eta euskalki guztiak ulertzeko. Epaileek bertso bakoitza puntuatzen dute eta idazkariari ematen diote epaia. Gero, epaile guztien puntuazio baturak ematen du bertsoaren emaitza.

**- Nolako profila dute epaileek?**

Kolore askotako epaileak daude: medikuak, irakasleak, kale-garbitzaileak, tabernariak... Jatorri ezberdinekoak gara eta, publikoarekin gertatzen den bezala, guk ere koloreak ditugu. Beraz, hortik ateratzen den emaitza publikotik ateratzen denaren antzekoa da.

**- Zein gauza hartzen dituzue kontuan puntuatzeko orduan?**

Epai-irizpideak idatzita daude eta publikoak dira.

## “Bertsoan dagoen edertasuna baloratzen saiatzen gara”

Atalez atal bertsoaren alderdiak azaltzen dira bertan: doinua, gaia, kanteara, elkarrizketa sortzen den edo ez, baliabide paratestualak, hizkuntza egokia erabiltzen den, gaiari ondo lotu zaion... Irizpideetan jartzen du zer den baloratuko dena eta zer den ontzat hartuko ez dena. Oinarria errima da eta legeztatuta dago zeintzuk diren ahoskideak. Irizpideetan ez du jartzen zenbat puntuatuko den eta bertsoan dagoen edertasuna baloratzen saiatzen gara.

**- Bertsolariek kirol legez hartzen dituzte zuen epaiak?**

Inoiz bizi izan dudan txapelketarik lasaiena izan da aurtengoa zentzu horretan. Batzuetan, bertsolariez gain, publikoaren irizpidea ere ez dator bat epaileek esaten dutenarekin. Bertsolariek eta publikoak badakite zaila dela epaitzerako orduan justua izatea, momentuko kontua delako. Hala ere, bertsolariek gure lana eskertzen dute eta badakite txapelketek epaileen beharra dutela. Jendeak gero eta gehiago baloratzen du epaileen lana eta orokorrean ondo tratatzen gaituzte. Bertsolari batzuk euren notak eskatzen diz-

gute, ariketa konkretu batean desadostasunak ditzutelako, eta guk gure argudioa ematen diegu.

**- Bertsolaritza asko aldatzen da lehian ibiltzetik plaza edo bertso-afari batean aritzera?**

Noski. Bertsolaria lotu egiten da txapelketetan. Euren saioa epaitu egingo dela dakite eta akatsen beldur egoten dira. Gaiak ere serioagoak izaten dira. Zozketa bitartez egokitzen dira eta ez dira plaza edo afarietan bezain pertsonalizatuak. Gero, lehia gusatzeko zaigu eta denek nahi dute BECen aritu, eta horrek giroa aldatzen du. Gai-jartzaileek ere demaseko lana egiten dute eta oro har lan izugarria dago atzean. Hori guztia ekartzen dute txapelketek eta ona da, gero herrialdeetan erabiltzen dugulako gartzen joateko.

**- Zuk non gozatzen duzu gehiago: txapelketetan edo bertso saio informala goetan?**

Tentsio maila ezberdinak dira. Afarietan gustura egoten zara, ez zaude hain adi, baina txapelketetan epaile izan naizenean gozatu izan dut. Tentsioa mantendu behar da txapelketan, baina naturala izaten saiatzen naiz, ez hain zurrana.



HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELKETAN  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEMU 3-945170563  
 ERMUA

**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usaetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

- **Noiz hasi zinen bertso-epaile moduan?**

Plazatik Gaztetxera txapelketan animatu nintzen epaile izatera, 2002an, eta 2004tik aurrera gai-jartzaille eta epaile hasi nintzen Bizkaiko Txapelketan.

- **Asko aldatu da bertso-larritza ordutik hona?**

Bai! Gizartea ere aldatu da, eta bertso-larritza oso gauza soziala denez, egunerokoak asko markatzen du. Gai politikoek, indarkeriak eta horrelako gaiek ez dute hainbeste espazio izan txapelketa honetan beste txapelketa batzuekin alderatuz, eta uste dut azken urteetako aldaketa izan dela hori. Bestetik, gero eta emakume gehiago dago bertso-larritzan eta horrek beste kolore batzuk ekarri ditu; ez bakarrik emakumeak izategatik, mota askotako bertso-lariak daudelako. Bertso-laritzak status puntu bat lortu du eta bertso-lariak iritzi-emaile bihurtu dira. Zabal-kunde handia izan dute herri askotan, eta ikaragarria da bertso-lariak duten oihartzuna eta jarraipena.

- **Bertsotan ibiltzen zara?**

Ibili izan naiz, baina gehiago idatzizkoan. Egin nuen plazaren bat, baina kitto! Gusturago nago epaile moduan edo gaiak jartzen.

- **Nolako maila ikusi duzu txapelketa honetan?**

Bi zatitan banatuko nuke txapelketa. Batetik, final aurreak iritsi arte egon den maila. Final laurdene-tan bertso-lari gazte asko aurrera egin du, saioak irabaziz. Nerea Ibarzabal, Oihane Iguaran, Miren Artetxe eta Agin Rezola, adibidez, BECen egoteko aukerakin ikusi nituen. Baina final aurrekoak iristean lehengo finalistetatik horrienganako tartea nabaritu da, eta oraindik koxka bat behar dutela ikusi da. Final laurdenekoetan oso bertso-saio politikak egin ziren.

- **BEC lepoz gainezka ikusteak presioa gehitzen du epaileengan?**

Bai. Oso bertso-zalea den jendea kanpoan geratu da eta pozgarria izan arren, kezkarria ere bada. Sarrrerak interneten erosten dira eta jende asko ez da-

## “Maialen Lujanbio besteengandik koxka bat gorago aritu zen finalean”



Aritz Loiola / ARGAZKI PRESS

go ohituta. Hala ere, BEC da gure neurria, bestela gauza handiegia bihurtuko litzateke eta bertso-larritza bere txikitasunean da ederra.

- **Nola bizi zenuen igandeko finala?**

Oso egun positiboa izan zen. Antolakuntza aldetik, pentsa zer den 15.000 lagun kudeatzea, eta oso balorazio positiboa egin genuen. Jendeak errespetu handia erakutsi zuen. Bertso-mailari dagokionez final polita izan zen. Batzuei kostatu zitzaizen goizean arrankatzea, baina arratsaldean saio ona burutu zuten. Maialen Lujanbio nabarmendu zen, besteengandik koxka bat gorago aritu zen, eta bigarren posturako lehia handia egon zen Aitor Mendiluze

eta Sustrai Colinaren artean. Oso maila handiko finala izan zen.

- **Bigarren txapela Maialenentzat.**

Demaseko maila erakutsi zuen goizean zein arratsaldean, oso zentratuta, eta ariketa guztietan nabarmendu zen. Irabazle justua nire iritziz.

- **Luze egingo zaizkigu hurrengo txapelketa nagusirako lau urteak?**

Herrialdeetako txapelketek jarraituko dute, plazak ere, eta astebururo bertso-laritzaz gozatzeko aukera egongo da. Euskal Herriko Txapelketa Nagusia lau urtean behin egiten den ekitaldi potentea da eta aurrean oso balorazio ona egin dugu, baina bertso-larritza ez da hemen amaitzen.

Ekhi Velar



**MALLA**  
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

**NEREA IÑIGUEZ**  
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

# Esteban Astarloa, musika bidaia-lagun

**“Natibitate ase eta bete;  
San Esteban, lehen bezelan”**

**Mallabiko Etxekone baserrian jaio zen 1917ko San Esteban egunez, gerora ehunka opera eta zartzueletan parte hartuko duen entzute handiko baritonoa. Bere jaiotzaren 100 urteak betetzen diren honetan, ondoko lerroak gizona zein artista ezagutzeko eta, zelan ez, bere ibilbide artistiko oparoa omentzeko.**

**A**bendua, 26. Goizalde. Aníño auzoko soloetan, negua eta bazterretan, hotza; Etxekoneko ezkatza baina, epel: beheko-sua garretan eta galdaratxo baten ura bero-bero, medikua noiz ailegatu. Angel urduri, Justina minbera... Handik gutxira, munduratu zaie. Hirugarrena; beste mutiko bat eta ume ondo ederra gainera. Negar gero... zelan egin! Biriki kontuetan, indartsu dator, kontizulu! Egutegiari esker, izena erabakita: Esteban.

Eskolara, herrikora eta etxeratzean baserriko zeregintxoren bat zain beti. Urteak aurrera, Martin, maiorazkoa, baserrirako eta Esteban, eskolante ona datorrela eta erlijiora bideratuko dute. Laga bere parajeok eta ikastera: Zornotza, Markina eta Filosofia Gasteiz eta Iruñan. Baina 36ko gerratea tarteko, abadetzarako bide hori za-

puztu eta bizitzak Madrilera tatarastuko du. Kantua afizio, kapitalean momentuko maixu-maistra onenekin formatuko da, musika bihurtuz luzarorako ofizio eta betirako pasio.

1944. urtean debutatuko du, Mozarten Las bodas de Figaro lanarekin. Hasieran operak taularatuz eta zartzuelak gero, hainbat konpania lirikoan abestuko du eta propioa ere izango du. Amaierarik gabekoa ahotsa jarriko dien lanen zerrenda: La bohème, La traviata, Luisa Fernanda, Gaviñanes, Fausto, Rigoletto, Carmen, La taberna del puerto, Las golondrinas, El caserío... banaka batzuk aipatzearen, berak gehien estimatzen zituenak tarteko.

## **Ukuragari**

Estatuko hiri handienetan eta estranjeriako aparteko lekuetan txalotua eta maitatua izango da. Esteban semearen



esanetan, “zuzeneko emaldiak, jendearen berotasuna, alde batetik bestera jira-biran ibiltzea... berari horixe gustatzen zitzaion!”. Bere baritono ahots zoragarriaren kalitateaz gain, emoziozatzeko duen dohai berezia eta eszenatokian erakusten duen espresibitatea goraiatzen du bere publikoak. Semearen aburuz, “bere erregistroaren

sonoritate eta ahotsaren indar ikaragarriagatik zen estimatua oso, baina batez ere bere pertsonaiak bizi eta interpretatzeko orduan erakusten zuen sinesgarritasunagatik. Ikuslegoa liluratzen zekien, intentsitate handienarekin biziz bere paperak!”.

Umila beti, sasoiko izar ospetsuenekin partekatuko du eszenatokia: besteak beste

**uriarte asesores** ✓  
Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza  
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

*Oh la lá!*  
EMAKUMEENTZAKO MODA  
Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefona: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com



### Los Gavilanes taularitzen



Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Victoria de los Angeles, Pedro Lavirgen, Marimí del Pozo edota Lina Huarte-Mendicoa, bere emaztea izango den sopranoa. 1950ean ezkondu, elkarrekin hainbat lan burutuko dituzte; bion gogoan betirako Argentina eta Uruguayn hiru hilabetez egindako jira artistikoa. 5 urtera seme nagusia helduko da, Ignacio, eta 16ra gaztea, Esteban. Honen umetako irudien artean, gurasoak etxean ahotsa berotzeko eta kolokatzeko

etengabeko musika-eskalak egiten zituzten oroitzapena. Estatu osoa muturretik muturrera zeharkatzen, konpania eta lan-talde desberdinetara egokitu beharretan, ahotsaren menpe beti, gaixo egon arren ere aurrera, familiarengandik urrun... ikaragarri esijentea da euren lana.

Egunerokotasunean bizimodu apala eramango du bikoteak. Sarri etorriko dira Mallabira; Andramarixetan, herritarrek irrikitan Esteban meza nagusian entzuteko. Arteta al-

dea gustatzen zaio bere entsaioak egiteko, leku zabala dela eta. Semearen akorduz, "behar-beharrezkoa zuen Madrilgo zarata eta bizimodu azeleratuarekin apurtzea, etxeokak bisitatu, umetako bere mendiak paseatu eta arnastu...". Etxekone beti egongo da bere baitan eta ez da kasualitatea Jesus Guridiren El caserío-ko Santiren papera bere kuttunen artean egotearena. Jubilatu eta eszenatokia pixkat albora lagata, euskarazko irakasle titulua atera eta Madrilgo Euskal Etxean klaseak ematen hasteaz gain, aspalditik buruan bueltaka dabilen asmoari oratuko dio: El caserío itzultzearena. Bizkaieraz eta hika trataeran egingo du. Bilbon estreinatuko da 1983ko irailean eta jasotako dirua aurreko hilabeteko uholdeetan kaltetutakoak laguntzeko bideratuko da. Semearen gogorapenez, "asti aldetik libreago ikusi zenean, ahalegin berezia jarri zuen bere haurtzarora akordura ekartzeko obra itzultzen eta taula-

ratzen: diru-laguntzak lortu Jaurlaritza edo Diputaziotik, orkestra antolatu, abeslari eta aktore taldea osatu, euskaraz abestu dezatela... Bere saltsan!".

Jubilatu arren ez da sekula erretiratuko eta 40 urte luze emango ditu lirikara lotuta. Deitzen dioten bakoitzean, kanturako prest. Hainbeste obra eta pertsonai ezagutzen ditu ze...! Almagroko Antzerkiaren Museo Nazionalean bere busto bat dute gordeta, genero lirikoari egindako ekarpenaren erakusle.

Esteban Astarloa Zubia Madrilen zendu zen, 1997ko ekainaren 25ean; neguko solstizioan etorri zena udakoan utzi zion. Hilabete batzuk lehenago, omenaldi bat jaso eta, zelan ez, abestu egin zuen, pozarren! Esteban semearen ahotik, Ignacio anaiari entzundakoa: "Hain zen alaia ze, lotan ere harek kantatu egingo zuela!". Behiobehin entzun zutenen akorduan betirako bere ahots disdiratsu ahaztezina.

Estibalitz González

### Lina Huarte-Mendicoa emazte sopranoarekin



### MALLABITARRAK 'EL CASERÍO' ZARTZUELAN ABESLARI

Jasokunde abesbatzeko kide batzuk Guridiren lanean parte hartuko zutela Euskaldunan Bilboko Orkestrak eskainiko zuen emanaldian. Uda aldera izan genuen horren berri, baina argi ikusi genuen Esteban Astarloaren urteurrenarekin lotu nahi genuela, berau izan zelako lan hori antzokiz-antzoki ezagutzera eman zuen lehen mallabitarra. Taldeko Uxue Alonso durangarra eta Igone Amesti eta Eneritz Aranburu mallabitarrak lana taularatzeko propio sortutako abesbatz lirikoko partaide izan ziren. Hiru emanaldi, aste betez entsaioetan buru-belarri sartuta... nekeza batzuetan, baina zalantza barik bizipen gogoragari eta errepikagarriz dute, abesteko eta antzeppen mundua barrutik bizi izateko aukera aparta eskaini zielako.



## Errautsetatik suspertzen herriaren laguntzarekin

**Une batetik bestera etxea galdu zuen Pradera Olaso familiak. Bizitza osoko oroitzen materialak errauts bihurtu ziren etxeak sua hartu ostean. Egoera latzaren aurrean, mallabitarrek eskuzabaltasun osoa erakutsi dute eta ahal den heinean lagundu diote familiari errautsetatik suspertzeko. Orain, familiak eskerrak eman nahi dizkie euren alboan egon diren guztiei.**

Irailaren 22ko arratsaldea zen eta Kalbario kalean duen etxean zegoen Begoña Olaso, beti bizi izan den etxean, 100 urtetik gora zituen eraikinean. Edozein ostiral arratsalde modukoa zen, tximikian sua piztu zen arte. Garrak sofara iritsi ziren eta orduan ohartu zen Begoña. Ez zuen pentsatzen sua bizituko zenik, baina garrek bere bidea egin zuten eta atzeko pasabidean harrapatuta geratu zen. Laguntza eskatu eta bizilagunek bere oihiak entzun zituztenean laguntzera joan ziren. Beste etxera ematen duen atea bota behar izan zuten Begoña handik ateratzeko. “Demaseko sustoa hartu zuen, kea ere arnastu zuen, baina ez zuen inongo zauri edo erredura handirik

izan”, aitortu digu Itsaso Pradera bere alabak.

Itsaso Ermuan bizi da eta ezagunek eman zioten abisua. Berehala igo zen Mallabira eta etxea erreta ikusi zuen. Ama ondo zegoela ikusita lasai geratu zen, “azken finean gauza materialak erre zirelako bakarrik”, baina hasierako talkaren ostean “pena handia” sentitu zuen. “Gauza asko galdu ditugu bertan, oroitzen ugari. Palan lortutako txapelak ere erre ziren, berriz hasi beharko naiz jokatzentz!” dio egoera latzari umorea jarriz.

Itsaso eta bere neba Koldo eta Julen etxetik kanpo bizi direnez, eurekin joateko aukera izan du amak, baina hasi dira etxea berriz altxatzeko lanetan. Etxeak sua hartu aurretik,



Koldo eta Julen etxe bat eraikitzen hasi ziren eta, zorigaitzaren ostean, amari apartamentua egitea erabaki dute, bertan bizi dadin. “Trabarik egin nahi ez duela esaten digu eta, erretako etxearekin zer gertatuko den ez dakigunez, konponbide egokiena iruditu zaigu apartamentua eraikitzea”, azaldu digu Itsasok.

### Herrikideen laguntza

Errautsetatik suspertzeko lanak ez dira makalak izango Itsasok adierazten digunaren arabera. “Seguruarekin eta horrelakoekin jardutea ez da erraza eta bizitzak aurrera jarraitzen du”, dio Itsasok. Bide horretan, beraz, familia, lagun, ezagun eta herrikideen laguntza esker onez hartu du familiak. “Lehen momentutik oso erantzun ona jaso dugu, demaseko laguntza. Arropak eta bestelako gauzak utzi dizkigute, Udalak etxe bat utzi dio amari konponbide bat aurkitu arte, eta zuzenean zein zeharka diru-laguntza ere jaso dugu”.

Hainbat ekimen jarri dira martxan familiari laguntzeko.

“Esti Arrizabalagak aipatu zigun jende asko zegoela gauzak emateko prest. Udalaren birtartez bideratu da laguntza eta bankuko kontu bat zabaldu zuten nahi duenak dirua emateko”. Laboral Kutxako 3035 0048 65 0480017745 kontu zenbakia ireki zuten (zabalik dago edonork laguntza eman nahi badu). “Beste jende asko zuzenean etorri zaigu diru-laguntza ematera”. Valentín Mugarzak, adibidez, bost eurotan saldu zituen bere ogiak hainbat astetan, “eta horietatik lau amari emateko izan ziren”.

Suak bortizki kolpatu zuen Pradera Olaso familia, baina aurrera egiten ari dira herriaren laguntzarekin, mallabitarren eskuzabaltasunarekin. 100 urtetik gorakoa izanik, etxea berriz eraikitzea behartuta daude, baina oraindik ez dakite zer gertatuko den etorkizunean. Etxea berriz altxatu edo ez, bizitza osorako anaitasun eta elkartzasuna eraiki da Pradera Olaso familia eta Mallabiko herrikideen artean.

Ekhi Velar

**Modas Cande**  
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia  
T 665 703 904  
modascande@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ZK**

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
Y BAJOS COSTOS  
Y ALIMENTACIÓN

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

# GABONETAKO EROSKETA GIDA

**Kokko**

f Kokko  
Zubiaurre 29, behea.  
48260 ERMUA (Bizkaia) Tel. 943 25 46 61

**quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

Bitxi-denda  
Erloju-denda

**Senén** 1978 *Tailer propioa*

*Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte*

San Pelayo zeharbidua 4 ERMUA (48260) BIZKAIA. Webgunea: joyeriasenen.com - Emaila: joyeriasenen@gmail.com

**IZARBI**

Zubiaurre 23 - 48260 Ermua - 946 590 140  
f Izarbi Ermua

EZ GALDU  
INDIZ  
IZARBIREN  
ARGIA  
EGUBERRI ONI!

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
KOTXEKO GILTZEN  
KOPIAK ere  
egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**IZAGIRRE**

Calvin Klein  
Punto Blanco  
D'M  
Guess  
Playtex  
Tommy Hilfiger  
Freya...

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia 943 170 277

**ZAPA  
TXIKI**

C/ Zubiaurre, 20 - ERMUA

## IRAKURKETA ERRAZAREN ALDEKO KANPAINA UDAL LIBURUTEGIAN

Ermuko liburutegiak #IrakurketaErrazaArriskuan kanpainarekin bat egin du eta jendea animatu nahi du Irakurketa Errazeko klubean parte hartzera. "Kluba desagertzeko zorian egon da, baina aurten zortzi parte hartzaile ditugu", adierazi digute liburutegikoek. Ermuan Irakurketa Errazeko bi klub daude, bata Eguneko Ospitalean, eta bestea Hirugarren Adineko Egoitzan. "Irakurketa Errazeko euskarazko 12 liburu dauzkagu eskura eta topera iritsi gara". Izan ere, "instituzio eta editorialetatik ez da bultzatzen Irakurketa Errazeko liburuen edizioa", diote liburutegikoek. Horregatik jarri da martxan #IrakurketaErrazaArriskuan kanpaina, Irakurketa Errazeko materialak areagotzeko.

Jende gutxi hartzen du parte klubean eta, nahiz eta izen-ematea irailean izan zen, "oraindik jendea apuntatu daiteke".

## AMAIA ARAIZTEGI MUNDUKO TXAPELDUN

Amaia Araitzegi 'One wall' modalitateko Munduko txapeldun bilakatu zen azaroan. Mallabitarrek Patricia Espinarrekin osatu zuen Euskadiko selekzioaren bikotea, eta Mexikori gailendu zitzaion San Juan de Pastonen (Kolonbia) jokatu den Munduko Txapelketako finalean.



## Txindurri Dantza Taldearen egutegia

Txindurri Dantza eta Txistu Taldeak proposamen ezin hobea du zuentzat. Ez dakizuela zer egutegi ipini zuen sukaldeko hormetan 2018ari ongi etorria emateko? Lasai! Zuengan pentsatuta aurten, gure taldeko dantzari, modelo eta artistek egindakoa jarri ahal izango duzue. Egutegiko argazkiek hil horretan dauden ekitaldiekin edota urtaroekin bat egiten dute. Inguruan ditugun paisaia ederak aprobetxatuz eta natura oso presente izanez, mimo handiz sortutako egutegia! Animatu eta erosi! Herriko hainbat saltokitan izango duzue eskuragarri (10 eurotan). Dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko!"



**Tasio eta Sabino**

## Okin Zuri ala Osin Zuri? (Jesús M Guisasaola)

Aldizkari honek izena hartzen duen iturria baino beheraxeago badago putzu bat Ermuko gazteek Okin Zuri deitzen ziotena. Putzu honetan herriko hainbat gazte ikasi du igeriketan Debara joateko joera nagusitu baino lehen. Etxeak eraiki ziren inguru hartan, etxaldeak Okin Zuri izena hartu zuelarik. Halere, putzua oraindik lehenengo lekuan dago, etxeak baino gorago.

Badago euskaraz putzua izendatzeko beste modu bat: osina. Beraz, zentzuzkoa dirudi tokiaren jatorrizko izena Osin Zuri izatea Okin Zuri beharrean. Halaxe deitzen zioten gure arbasoek. Kontua da erdara gailendu zenetik jatorrizko forma aldatzen joan dela, egungo deiturara iritsi arte. Are gehiago, erreka berean gora, bada beste putzu bat, ingurukook Osin Beltz gisa ezagutu duguna gaurdaino.

Honakoa ez da erdararen eraginez gertatu izan den deformazio bakarra, euskal geografiako toki oso ezagunek ere jasan dute antzeko aldaketaren bat. Adibidez, Donostiako La Concha hondartzako Lakuntza (gatzelerazko lago) izan zitekeen jatorriz. Horrela deitzen diote inguruko zaharrek. Leku berean dago Pico del Loro lurmuturra, baina berez Loretope zuen izena - egungo Miramar jauregia dagoen tokian baitzegoen Ntra. Sra. de Loreto komentua, eta haren azpian lurmuturra. Beraz, izan ditzagun kontuan gure lekuen jatorrizko izenak: kantera ondoko auzoak Osin Zuri beharko luke izan Okin Zuri beharrean.

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

**CITROËN**

**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

**T** XALAPARTA  
ABERNA


Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13  
(Ermua)

**ENKARGYAK**  
943 030 299

# Giro aparta Euskararen Egunean



Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna izan zen eta giro ederrean ospatu zen Ermuan. Egunean zehar hainbat ekintza egin ziren eta herritarren parte-hartzeak egun hotza berotu zuen.

Hurrengo urtean egingo den Euskaraldiari begira martxa hartzen ari da herria, 11 egunez euskaraz aritzeko prestatzen, eta AHOBIZI eta BELARRIPREST figurak ezagutarazteko, bideoa prestatu du Ermuko Euskaltzaleen sareak (Youtubean “Ahobizi Belarriprest Ermua” jarrita ikus daiteke”).

Euskal Herriko zita garrantzitsu hori baino lehen, hala ere, maiatzaren 26an Ermuan Bagara Eguna ospatuko da herrian. Antolatzaileek adierazi digutenez, hainbat sorsaren berri emango digute aurrerago.

## Gurasolagun markak hausten

Gurasolagunek marka guztiak hautsi ditu 2017/18 ikasturtean partaide eta talde kopuruei dagokienez eta, ildo horretatik, “Ermuko eskola guztietan egongo da Gurasolagun talde bat aurten”, diote pozik Kaltxango AEK-tik. Zazpi talde izango dira eta 50 gurasok hartuko dute parte, Eskolabarriko taldea sortzea lortzen badute.

Berbalagunek oso garrantzitsutzat jotzen du Ermuko guraso hauen euskararekiko interesa eta, zorianak eman nahi dizkie parte hartzen dutenei. Halaber, azpimarratu dute proportzioan Euskal Herriko Gurasolagun emaitzarik onena dela.

Gurasolagun Berbalagun praktika egitasmoen azpi-proiektuetariko bat da. Bertan eskoletako guraso eta umeak elkartzen dira eskolatik irteteen euskara praktikatzeko. Horrenbestez, guraso bazara eta euskara praktikatu nahi baduzu, oraindik garaiz zabilta talde hauetan parte hartzeko. Bidali mezua ermua\_berba@aek.eus edo idatzi Whatsapp mezua 663 070 492 telefonora.

**aek**  
euskara praktikoa



**% 100  
AFEKTIBOA**

**Ermuko Kaltxango Aek**  
**MATRIKULA ZABALIK**  
urtarrilaren 8tik 22ra

Maila guztietako azterketak prestatzeko taldeak:  
B1, B2, C1 eta C2

Gainera, euskara maila  
hobetzeko eta praktikatzeko taldea:  
**Hobekuntza**

**EMAN IZENA!!**

Bizkaia etorbidea13, behea  
943 171940/607623961

**kaltxango@aek.eus**

# Eguzki-labeen elkartasun beroa

Ondarruko institutuan EITBko antenekin eguzki-labeak egiteko proiektua jarri zuen martxan Javier Crespo irakasleak 2015ean. Zeresana eman zuen ekimena izan zen, bide bat zabaldu eta gaur egun bizirik jarraitzen duena. Labe horiek Malira (Afrika) iritsi ziren, baina Crespok bere egitasmoarekin aurrera jarraitu du eta labe berriak oraintsu iritsi dira Cabo Verdere (Afrika). Bigarren izan da aita berriki, baina aurtengo ikasturtean ez da geldirik geratuko eta asmo berriak ditu buruan.



Mundua aldatzeko norbera aldatu behar dela dio Javi Crespok, “Mahatma Gandhik esan zuen moduan”. Gutxi bada ere, bere egunero koan aldaketa txikiak eginez pertsona bakoitzak mundua aldatzeko pausoak ematen di-

tuela mantentzen du irakasle ermuarrak. Bere ekimenez pauso horiek ematen hasi ziren Ondarruko institutuko ikasleak 2015ean. EITBko antenak eguzki-labe bihurtzeko proiektua proposatu zien Crespok eta ondarruarrak gogo handiz murgildu ziren egitasmoan. “Demaseko arrakasta izan zuen”, dio irakasleak. EAThink proiektuaren barruan sartu zen ekimena eta Milaneko Expoan aurkeztu zuten euren lana. “Hiru parabolikorekin labeak egin genituen eta bat hemen utzi genuen, erakusteko”. Hamar eguzki-labe egin zituzten eta beste hamar egiteko materiala

bidali zuten Malira, “planoe-kin, lapikoekin eta abar”. Orain, labe horiek martxan jartzeko norbait falta da Malin. “Bubaka proiektuaren ardurduna, hil egin zen eta berak zekien labeek nola funtzionatzen zuten”.

Ondarruko institututik Gasteizko Sansomendira joan zen Crespo. Han ez zuten antenen proiektua garatu, baina elikagai burujabetzarekin jarraituz eta EAThink proiektuaren barruan, kafe hondarrekin perretxikoak ekoiztu zituzten, besteak beste. “Batzenzat zaborra dena beste batzenzat baliagarria izan daiteke!”. Izan

ere, ohiko ikasgaiak ikasteaz gain, etika eta balioak lantzen dituzte ikasleek proiektu hauen bitartez, errealitatera hurbildu dira. Bere ustez, errealitatetik urrun dauden gauzak lantzen dira eskola edo institutuetan, bakoitza bere aldetik, “eta errealitatea bakarra da”. Crespok azaltzen duenez, ikasleek oso pozik egiten dute lan proiektu horietan eta, tartean altruismoa badago, asko inplikatzeko dira. “Gazteek lagundu nahi dute, baina ez dakite nola”. Gainera, bere iritziz, zeharkako proiektu hauen bitartez ikasleek ez dakite etika, matematika edo teknologia



**esanline**<sup>®</sup>

+ @ + TV + Smartphone

☎ 846 080 010  
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua  
💻 [esanline.es](http://esanline.es)

BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

**SPARA**  
rehabilitación + sostenibilidad

ZUK ERABAKI

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. [enolimp@hotmail.com](mailto:enolimp@hotmail.com)  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

**DG Horacio Decoración**

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
[www.dghoraciodecoracion.com](http://www.dghoraciodecoracion.com)

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

klasean dauden. “Eguzki-labeen proiektuarekin ikasgai guztiak landu genituen hiru hilabetetan zehar: matematikan ‘mylar’-aren azalera kalkulatzeko, teknologian bistak lantzeko, ingelesean Cabo Verden erabiltzeko tutoriala idazteko, eta fisikan kaloriak eta energia zer diren ikasi zuten, besteak beste”. Irakasleek ere pozik hartzen dute parte proiektuan. Bere ustetan, “polita da guztiok elkarrekin lan egitea”.

#### **Antzen duan diseinua**

Javier Crespok lau urte daromatza eguzki-labeen diseinua garatzen. “Etxean erabiltzen ditut eta urtetik urtera labeak hobetzen ari naiz”. Gaur egun ez ditu EITBko antenak erabiltzen: “Orain polipropilenoa (oso merkea eta ia pisurik gabekoa) ‘mylar’ aluminiozko paperarekin estaltzen dut, oso isolatzaile ona dena”. Irakasleak dio antenekin egindako eguzki-labeek potentzia handia hartzen dutela, baina onartzen du “handiak eta arriskutsuak” direla. Labe berriekin eguzki-izpiak puntu batera bideratzen dira, bertan kristalezko ontzi baten kontra jotzen dute eta barruan kokatzen den lapiko beltza berotzen dute. “180°-ra heltzea lortu dut 600 gramo pisatzen duen labe batekin”. dio. Labea kartoiarekin ere egin daitekeela azaltzen du Crespok eta materialaren

kostua 40-50 euro ingurukoa dela. “Labeek denbora askoan irauten dute. Nik etxeko kanpo aldean daukat, egurats zabalean, eta hiru urteren ostean primeran jarraitzen du”.

Aurten 135 egunetan erabili du etxean daukan eguzki-labea, eta urtea amaitu baino lehen 140 egunetan erabiltzea espero duela dio. “Hotz edo bero egin, eguzki-izpiak hartzea da kontua”. Gainera edozein gauza sukaldatzeko balio du. “Agian denbora gehiago behar duzu, baina denetarik egin daiteke. Bi ordu eta erditan oilaskoa egin dezakezu neguan, eta oso gozoa irteten da! Bizkotxoia egiteko ordubete behar da gutxi gora behera”. Bestetik, eguzki-labeen ezaugarri bat azpimarratzen du irakasleak: “Labea erabiltzen duzun bakoitzean kilo bat CO2 murrizten duzu”.

Labea mugitzeko mekanismoa ere sortu du Crespok eta labea eguzki izpiekin mugitzeko moduaren bila dabil orain. “Eguzkiarekin kozinatzea bezalako gauza simple bat modernoa den zerbaitetan bilaka dezakegu”. Orain Arrasaten ari da klaseak ematen eta bertan garatu nahi du proiektu hori, nahiz eta orain dela astebete aita izan den. “Ez dakit nola ibiliko naizen, baina ziur zerbait egingo dudala, aspertu egingo naizela eta bestela”.

#### **Cabo Verden eta Ermuan**

Arrasatera iritsi aurretik Berrizko institutuan egon zen Crespo iaz irakasle lanetan. Ondarrun egin bezala, zentroan bere proiektua azaldu eta, arduradunek begi onez ikusi zuten, eguzki-labeak egin zituzten. Ikasleek bere gain hartu zuten proiektua eta euren ekimenez joan dira Cabo Verdera eguzki-labeak. Eskolako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) arduradunarekin harremanetan jarri ostean, emakume bat eskolara joan zen eta proiektuaren berri eman zuen sare sozialetan. Iruñeako ‘Ayuda contenedores’ izeneko GKE-k interesa erakutsi zuen eta haien bitartez joan dira labeak Cabo Verdera. “Zortzi labe bidali genituen eta orain dela hilabete iritsi ziren. GKEko kide bat joan zen labeak montatu eta martxan jartzeko azalpenak eta laguntza eskaintzera”. Eguzki-labeak jaso dituztenak “liluratuta” daudela dio Crespok. “Oso arraroak dira euren zatat. Gero, lapikoak ere bidali dizkiegu eta oso eskertzekoa da Ermuko jendearen eta denden laguntza, materialak eta tresnak eman edo prezio merkean utzi dizkigutelako”.

Cabo Verdera joan gabe ere, Ermuan badira eguzki-labeak erabiltzen dituztenak. Labeen



funtzionamendua azaltzeko ikastaroa eman zuen maiatzean Izarra zentroan eta 15 lagun inguru bildu ziren bertara, “pertsona nagusiak batipat”. Berrizko institutuko beste 15 irakaslerentzat ere labeak sortu zituen Crespok eta, enkaragua eginez gero, gehiago sortu ditzake. Irakasleak labearekin egin duen guztia apuntatzen du (erabilitako egun kopurua, labeak hartutako graduak, zer egin duen...), eta liburu bat idazteko asmoa dauka erabileraz azaltzeko, errezetekin, eta abar.

Ekhi Velar

**mari asun**   
LORADENDA  
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**Caperos**  
Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**URRETA** **burdindenda**  

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Errailak	

 Beharkeala 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**KARABIXA**  
**KARABIXA KAFETEGIA**  
 Egunero 8:30etik aurrera zabalik

GOOGAZ Bizkaia:

## “Gazteria motibatzea dugu helburu”

Maialen Arrizabalaga ermuarrak, Iratxe, Karla, Aritz, Irati eta Juanek LEINN ikasten dute Mondragon Unibertsitatean (Oñatiko fakultatean). Bi taldetan zeuden banatuta, eta Unibertsitateko azken bidaian Txinan egin zuten bat.

Jakina da, gaur egungo gazteria motibazio krisi batean murgilduta dagoela: oso zaila da lana aurkitzea, gustuko lanpostuetan lan egitea utopia bat da eurentzat, ez dira euren pasioetan murgiltzen, ez dute aukeratzen gustuko duten unibertsitate gradua... Hori ezinezko da! Pertsona guztiek dute talentua, bakoitzak berea. Pertsona arruntak dira gazteak, baina gauza miresgarriak egiteko jaiokak, eta horregatik dira euren etorkizunaren jabe.

### - Zer da Googaz?

Millennialok sorturiko mugimendu inkonformista da Googaz. Mugimendu gaztea da, eta Bizkaiko gazteria motibatzea da gure helburua. Gaur egungo gazteria astinduko duen mugimendua da.

### - Zein da zuen helburua?

Askotan pertsonen talentu bereziak itzalean gelditzen dira eta horregatik gaude hemen. Googaz mugimenduen bidez gazteen potentziala landuko dugu ekintza ezberdinak garatuz.

### - Zergatik elkartu zineten?

Zein izan zen horren arra-

### zoia?

Gure artean hitz egiten geundela, motibazio falta sumatu genuen gazteen artean, bai karrera hautatze horretan eta bai karrera bukatzen zutenean ere. Horregatik pentsatu genuen mugimendu hau sortzea.

### - Nola hasi zineten proiektua garatzen?

Elkartu eta Bizkaiko Diputaziora joan ginen gure proiektua kontatzera. Bertan gazte proiektuentzat bideratutako diru-laguntza baten berri eman ziguten eta izena eman genuen. Horren bitartez Bizkaiko hain-



bat udalerritan ibili gara gure proiektua saldu nahian, eta zazpi udaletan lortu dugu! Uztailean aurkeztu genuen proiektua eta duela hilabete eman ziguten baiezkoa. Horrez gain Lastur dugu kolaboratzaile bezala, beraz primeran!

### - Nolako sentsazioa duzue?

Proiektu potentea da, baina beldurra ere badugu. Hala ere, gogotsu gaude eta aurrera jarraituko dugu. Lau bolo egin ditugu, guztira 80 pertsona inguru bildu dira eta 24 proiektu sortu dira. 4.000 euro eman ditugu eta BBK Liverako sarrerak ere. Beraz, pozik gaude gure lanarekin! Boloak momentuz herri mailan egin ditugu, baina herri bakoitzeko irabazleak BIZKAIKO KOPAN hartuko dute parte eta

hemen sari handiagoak banatuko dira. Sariak dira gazteak mugitzeko tentazio nagusia.

### - Zertan oinarritzen da zuen mugimendu hau?

Bi oinarri ditugu. Bata, boloak dira. Herrietan bertan egiten dira, eta gazteak elkartu eta proiektuak sortzen dituzte. Bestea, sare sozialak dira, Instagrama batez ere. Garrantzia handia ematen diogu honi eta gazteak erakarri nahi ditugu egoera errealeak sortuz. Gaztedia astindu, esnatu eta motibatu.

### - Etorkizunera begira, zerbait duzue buruan?

Euskal Herrian zerbait handia egitea dugu helburu. Bizkaian hasi gara, baina hazten jarraitu nahi dugu Euskal Herrira heldu arte.

Amalia Arginzoniz



solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



optika  
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51



Anne Erauskin eta Mirene Moreno, eskubaloi jokalariaik

# Mundialean egoteko ilusioz

Imanol Alvarezek zuzentzen duen Espainiako junior selekzioarekin aritu dira berriki Anne Erauskin eta Mirene Moreno eskubaloi jokalariaik. Astebeteko egonaldia egin dute Bejarren (Salamanca) eta Portugalen aurka bi partidu jokatu dituzte. Neurketa biak irabazi ostean, pozik bueltatu dira etxera ermuarrak eta uztailean Hungarian jokatuko den Munduko Txapelketan egotea espero dute.

- Zer moduz joan dira Bejarreko egonaldia eta Portugalen aurkako partiduak?

**Anne:** Ondo! Aurretik egonda nago Espainiako selekzioarekin eta ezagutzen nuen nolako dinamika duten honelako egonaldiak. Goiz eta arratsaldez entrenatzen dugu, eta nahiz eta atsedena hartu, gogorra egiten da ohituta ez gaudelako. Orain Imanol Alvarez da Espainiako junior taldeko hautatzaile berria eta oso pozik gaude berarekin. Gainera, Mire-



ne ere etorri izana oso pozgarria da!

**Mirene:** Niretzat lehen aldia da Espainiako selekzioarekin eta oso pozik joan naiz. Annerentzat agian ez da hain gogorra izan, baina niretzat bai. Ermuan arratsaldeetan bakarrik entrenatzeko ohitura daukagu, eta egunean birritan entrenatzea asko igartzen da.

**A:** Exijentzia ere ezberdina da. Gure taldean egun txarra badaukazu, erlaxatuta egon zaitezke, baina selekzioan ez.

**M:** Gure buruari ere autoexijentzia handia eskatzen diogu.

- Zer moduz Imanolekin?

**A:** Hasieran beldur pixkat banuen, ez nekielako nola irtengo zen, baina azkenean oso ondo. Konfiantza ematen dizu Imanolek eta horrek lasaitzen zaitu. Horrela errazagoa da egoerei aurre egitea.

**M:** Lau urte daramatza gu berarekin Ermuan, beraz, berarekin aritzera ohituta gaude. Behar denean gogorra da, baina bestela ez da hain entre-



natzaile zorrotza.

**A:** Exijitzen du, horrela behar delako. Aurreko hautatzaileak askoz gogorragoak izaten ziren.

**M:** Taldeko jokalariaik eta beste kideak oso jatorrak dira eta dena oso eroso izaten lagundu digute.

- Martxoan Mundialean sartzeko kanporaketak jokatuko dituzue. Nola egingo diezue aurre?

**A:** Gure taldean lau selekzio gaude eta hiru partidu jokatuko ditugu sailkapena lortzeko. Portugal, Austria eta Hungaria izango dira gure arerioak, eta lehen biak sailkatuko dira. Nik uste dut nahiko talde erraza tokatu zaigula.

**M:** Portugal izan daiteke talderik arriskutsuena eta bi partidu irabazi diegu berriki, beraz, Mundiale-rako sailkatzea posible

ikusten dugu

- Eta zuek Mundialean aritzeko aukerak ikusten dituzue?

**M:** Esperantza beti daukazu, baina ikusiko da. Egonditok pozik bueltatu gara eta Mundialean egotea espero dugu.

**A:** Guk bertan egoteko dena emango dugu, baina Imanolen erabakia izango da.

Ekhi Velar



Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



## PUB YOMY

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

## DROGETEN

Publizitatea:

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

## Euskararen Eguna San Lorenzon

Pasa den astean eskolan euskara eguna ospatu genuen. Euskararen erabilera bultzatzeko asmoarekin hainbat ekintza burutu genituen: euskararen aldeko leloak gelara aurkeztu eta leihoetan itsatsi, pankarta erraldoia margotu. Ondoren partitura atera, "Aldapan gora" Flash Mob-a dantzatu zuen eskola guztiak, eta zirkorrika dantza akrobatikoa egin zuten eskolako ikasle nagusienek. Argazki eta bideoak ikusi nahi badituzue eskolako blogean eskegita daude: <http://sanlorenzoeskola.blogspot.com.es/>



### GABONAK

Denbora arin doa eta Gabonak heltzear daude. Urtero bezala, eskolako azken egunean Olenzero bisitan etorriko zaigu ikasleen eskaerak entzutera. Aurretik, gela bakoitzak prestatutako kanta eta dantzak aurkeztuko dituzte Gabonetako jaialdian. Ah! Egun horretan bertan Santo Tomas eguna ere ospatuko dugu, eskolako gurasoen primerako txistorra prestatzen baitigute.

Begira nolako Olenzero eta elurrezko panpin dotorea egin dugun eskolan!



### Nagusiekin elkarlanean

Gure eskolako ikasleak hamabostean behin, ikasurte osoan zehar, nagusien egoitzara joaten dira bertako nagusiekin esperientziak elkar trukatzera. Mahai jolasak, istorioak kontatu, moztarrok elkarrekin egin, liburu elektronikoak erabili, eskulanak burutu, bingora jolastu... era ezberdinetako jarduerak elkarrekin konpartitzen dituzte. Benetan esperientzia interesgarria izan da!





**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44



**san pelayo**  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

**943 17 04 04**

**OSASUNA • ESTETIKA**  
**EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

 **Egokitutako burua garbitzeko konketa**

**943 17 28 09 • Goienkale 12**



**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

**Tel: 943 03 17 56**

Diputazio, 5

ERMUA



# Bilboko harresia

**D**onald Trumpen espiritua Bilbon porturatu da. AEBetako presidente polemikoa berdindu nahian, Portuaren arduradunek harresi bat eraikitzeko agindua eman dute, etorkinak astero Erresuma Batura abiatzen diren ferryetan ezkutuan sar daitezen eragozteko. Hori izan da Espainiako gobernua-  
ren errezeta Europako Batasuneko migrazio-politikak eragindako arazoa konpontzen saiatzeko, gerratik eta miseriatik ihesi doazen pertsonen edozein igarobide seguru eta legal ukatzen dien politikak eragindako arazoa, hain zuzen. Migrazio-politika kriminal horrek etorkizun hobearen bila dabiltzanak pateretan emigratzera behartzen ditu, edo kamioien behealdean, edo polizoi, ... hala mafien negozio osoa hauspotuta.

Traba gehiago ezarriz, Bilboko Portuko harresia, kasurako, migratzaileek ibilbide garesti eta arriskutsuagoak hautatu behar izatea besterik ez da lortzen. 2016an, ACNUR-en datuen arabera, 4.759 lagun hil ziren Mediterraneoan itota. Zergatik ez zaie uzten garraibide publikoan bidaiatzen, mundu guztiari bezala?

Pertsonen atea ixten ari zaien aldi berean, jakin berri dugu Bilboko Portutik armak bidaltzen zaizkiola Saudi Arabiari, zeina Yemengo gerran baliatzen ari den haietaz. NBE-k eta Unicef-ek herrialde arabiarra salatu dute, hondamendi humanitarioa eragiten ari dela egotzita, Yemen bonbardatuz 10.000 zibil erail eta beste 50.000 zauritu baititu. Honekin lotuta, herrialdea sarraskitzen ari den kolera-agerraldia Ye-

mengo historian gogoratzen den hilgarriena da, hildakoak 2.100 eta kutsatuak 750.000 baino gehiago direnez gero, NBE-k berak irailean argitaratu zituen datuen arabera.

Egoera honetan, Mariano Rajoyren gobernuak 700.000 euroko laguntza humanitarioa bidali du Yemenera, baina esportatu ditu Bilboko Portutik, besteak beste, kopuru hori mila aldiz gehiago arma: ia 700 milioi euro armetan, Saudi Arabiari salduak, bonbardaketak hasi zirenetik. Hori guztia Europako Parlamentuak berak gomendatu duen arren arma-salmenta blokeatzea herrialde arabiarri, eta arma-merkataritzari buruzko Espainiako legeak debekatzen duen arren gatazkan dauden edo giza eskubideak bortxatzen dituzten herrialdeetara esportatzea.

“ Migratzaileek ibilbide garesti eta arriskutsuagoak hautatu behar izatea besterik ez da lortzen ”

ERMUKO NAZIOARTEKO  
LANKIDETZA ETA  
ELKARTASUN  
KONTSEILUA

arral97.com  
**arral**

Telf.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

  
IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia  
94 317 66 90  
peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com


Zure **publizitatea:**

**DROGETEN** ITTURI  
**DROGETEN** ITTURI  
**DROGETEN** ITTURI

aldizkarian

943 179350  
688 632876  
drogeten@gmail.com

Hamburguesería  
**TITANIC**



Pintxo dastaketa  
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

## MALLABIA 1944

Argazki hau 1944 inguruan Indalecio Ojangurenek atera zuen Gerian, bertan auzoko emakumeekin batera Ermukoak agertzen dira. Ermukoak Geriako baserrietan egoten omen ziren neskame moduan. Goitik hasita eta ezkerretik eskumara: Maria Gerrikabeitia (Ibarra baserria), Maria Gerenabarrena (Agarre), Valentina Romero (Bastaitte), Maria Apoita (Uzar), Luzia Mugaguren (Errekalde), ermuarra, Bernarda Apoita (Usar), Maria Anchia (Longarte) eta, azkenekoa, ermuarra ere.

Topatu ez ditugun izen bi horien berri, baten batek bai?



## ERMUA 1952



Leon Lauzirika eta Petra Uribarrenaren 7 seme-alabak Ibarangelun jaio ziren, gurasoen tabernaren gaineko aldean. Bizitzak mundura zabaldu zituen gero: Ameriketara pare bat, Italiara beste bat, Frantzia aldera laugarren bat eta Ermura gainontzekoak. Bizimoduari aurre egiteko, taberna bat jarri zuten Ermuko Erdikokalen. Haren izena? Ibarangelu. Hango jatorrikoak izanda, zein bestela? Argazkian, ezkerretik eskumara, atzeko ilaran: Piedad, Mari eta Paz. Aurrekoan, etxeko gaztenak: Cruz, Inma, Javier eta Divina.

# Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

# Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

## Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

## LAN BILA

Emakume euskalduna adineko jendea zaintzeko edo laguntzeko prest. Ordutegiari dago-kionez, guztiz libre. Gainera, gida baimenarekin eta autoarekin. Interesatuak deitu telefono zenbaki hauek batera mesedez: 620 671 704 edo 943 174 871.

Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. Ordutegi libre. Telefonoa: 657 479 770.



Zorionak Maialen zure lehen urtebetetze egunean familia osoaren partez! Maite zaitugu



Abenduaren 12an Zorionak Uxue familia guztiaren partez!



Abenduaren 8an Zorionak Ibai!!! Patxo potolo bat eta besarkada erraldoi bat etzekuen partez.



Abenduaren 30ean Zorionaaak Aratz!!! Urtexo eder bat, segi horren alai pitxin!! Patxo haundi bat familia osuan partez. MAITXE ZAITXUGU!



Ongi etorri Alex! Zorionak aitatxo, amatxo eta Danelen partez!



Abenduaren 4an Zorionak Ane zure 11. urtebetetzean familia osoaren partez! Oso ondo pasau zure egunean laztana! Musu handi bat!



Abenduaren 29an Zorionak Oskar! Ondo pasa zure urtebetetzean! Muxu handi bat Lucía eta Dianaren partez. Maite zaitugu!



Abenduaren 18an Zorionak Ander zure izeko, osaba eta lehengusu Aimarren partez!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:

**drogeten@gmail.com**

Azken eguna: Urtarrilaren 17a.



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia  
**Silvia**  
peluquería



688819336

**ZINEA**

**6tik 8ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**13tik 15ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**20tik 22ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**27etik 29ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak  
Ermua Antzokian.  
Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 4:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 11:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 18:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 25:**  
Zehaztu gabeko filmea  
Ermua Antzokian.  
20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 7:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**Hilak 14:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**Hilak 21:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**Hilak 28:**  
Zehaztu gabeko filmeak  
Ermua Antzokian.  
17:00etan.

**MUSIKA**

**Hilak 12:**  
Opera proiektzioa: "La flauta mágica".  
Mozart. 20:30ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 8€

**Hilak 20:**  
Blues kontzertua:  
Awex Blues Band.



20:00etan. Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 8€

**Hilak 26:**  
Kontzertua: Zenet.  
22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€



**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilaren 4ra arte:**  
Gabonetako haur parkea: puzgarriak, ohe elastikoak, ludoteka bideo-konsolak, jumping, tailerrak... 11etatik 13etara eta 16etatik 20etara. Sarrera: 2€

**Hilak 5:**  
Errege Magoen kabal-gata (kalejira).  
18:00etatik. Sallabente ikastetxetik.

**Hilak 13:**  
Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean.  
Lobiano Kultur Gunean

**Hilak 27:**  
Haurrentzako antzerkia: "Enperadoreen jantzia", Lekim Animazioen eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

**ANTZERKIA**

**Hilak 19:**  
"The Primitals", Yllana & Primita Brothers.  
22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€



**ERAKUSKETA**

**22tik otsailaren 4ra:**  
Argazkiak: "Ermua Antzokia 2017".  
Oscar Blanco. 18etatik 20etara.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 28:**  
Extremadurako txarriboda. 10etatik.  
Extremadurako zentruan.

Patxi López

**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko

**PRO**  
arraindegia

**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



# ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

## Matrikula zabalik

**Ikastaroa urtarriletik ekainera**

### TALDEAK MAILAK ETA ORDUTEGIAK

<b>9:15-11:15</b> ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA	<b>10:30-13:00</b> ASTELEHENA ASTEAZKENA	<b>16:00-18:00</b> ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA	<b>18:15-20:45</b> ASTELEHENA ASTEAZKENA	<b>18:15-20:15</b> ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA
<b>B2 MAILA</b>	<b>A1 MAILA</b>	<b>B1 MAILA</b>	<b>A1 MAILA</b>	<b>B2 MAILA</b>
<b>C1 MAILA</b>	<b>A2 MAILA</b>	<b>B2 MAILA</b>	<b>A2 MAILA</b>	<b>C1 MAILA</b>

### HABEren AZTERKETAK MAIATZEAN

A1eko, A2ko eta B1eko azterketak euskaltegian

**Langabetuek prezio erdia**

# ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA


**Teresa Murga Eraikina**  
**Goienkale z/g 2. solairua**

**Tel: 943170925**

**euskaltegia@udalermua.net**

# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
**Bainugelen erakusketa**  
943 17 15 56  
**Tailerra**  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS  
- Toldoak  
- Ostalaritzarako muntaiak  
- Pertsianak  
- Instalakuntzak eta konponketak  
- Motorizazioa  
- Manparak  
- Segurtasun pertsianak  
- Pertsiana dekoratiboak  
- Estoreak  
- Eltxo-sareak  
Tailerra:  
Zoareko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)  
Erakusketa: Korabiva 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

**ETXE-BIRGAITZEAK**  
BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOKAK  
LAGUNDUKO DIZU  
ZUK ERABAKI  
  
www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57  
IZARRA CENTRE Erakina Zeharkaina, 36, 3º 48200 Ermua - Bizkaia

**ETXETRESNAK**  
  
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA  
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**ELEKTRIZITATEA**  
**BETA**  
**ARGIZTAPENA**  
**ELEKTRIZITATEA**  
• Proiektuak • Kalefakzioa  
• Instalazioak • Gaueko tarifa  
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak  
**Diputazio, 13**      **943 17 65 25**  
                                 **689 23 31 71**

**ERROTULAZIOA**  
  
• Argi errotuloak  
• Autoendako errotuloak  
• Barne errotulazioa  
• Irudi korporatiboa  
• Neoia  
• Inpresio digitala formato handian  
Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behe (Mallabia)  
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com